

35/2021 FORU ARAUA, ABENDUAREN 23KOA, IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEN ZERGA ARAUBIDEARI ETA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIEI BURUZ

(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa)

ZIOEN AZALPENA

Foru arau honen xedea da irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak arautzea.

Arabako Lurralde Historikoan ekimen pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartzeko pizgarriei buruz onetsi zen lehen xedapena 13/1996 Foru Araua izan zen: 13/1996 Foru Araua, apirilaren 24koa, interes orokorreko jardueretako partaidetza pribaturako zerga pizgarriei buruzkoa.

Foru arau hori onetsi ondoren herritarren artean gora egin du sektore pribatuak interes orokorreko jardueretan parte hartzearen aldeko kontzientziak, oharturik batzuetan sektore publikoa ez dela gauza ongizate estatua esaten zaionaren itzalpean sortzen ari diren beharrizan berri guztiak asetzeko. Horregatik, hasierako zerga araubidea 16/2004 Foru Arauaren bidez eguneratu eta sendotu zen (16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa, irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzkoa). Arau hark bultzada garrantzitsua eman zien entitate horiei eta interes orokorreko jardueretarako egiten diren ekarpen sozialen zerga tratamendua hobetu zuen.

Hala ere, berriz ere mota honetako entitateen gaineko zergen gaineko hausnarketa egin dugu eta horren ondorioz foru arau hau prestatu dugu.

Batetik, irabazteko asmorik gabeko entitateen EAEko esparru juridikoa bera aldatu eta eguneratu egin da 2004az geroztik.

Beste alde batetik, fiskalitate berrian kontuan eduki behar dira haur egungo globalizaziorako joerak, ekonomiaren liberalizazioa eta irabazteko asmorik gabeko entitateen jardunaren eskaria eta aintzatespen soziala, eta horien zerga araubidea Erkidegoko ordenamendu juridikoarekin bateratu behar da.

Gainera, foru arau honen bitartez beste helburu bat ere lortu nahi da: bultzada handia eman nahi zaie irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubide bereziari eta haiek finantzatzen laguntzen duten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen mezenasgoari, gure gizartean egiten duten funtsezko lana aintzatesteko.

**I. TITULUA
XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA ARAUDI OSAGARRIA**

1. artikulua. Xedea

1. Foru arau honen xedea da bertan zehazten diren irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidea arautzea, entitate horien zeregin soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan izanda.

2. Era berean, foru arau honek mezenasgorako zerga pizgarriak ere arautzen ditu.
3. Mezenasgoa da pertsona pribatuek parte hartzea interes orokorreko jardueretan.

2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie: abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 2. artikuluan xedatzen duenaren arabera, urtarrilaren 29ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 2. artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta apirilaren 19ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 1. artikuluan xedatzen duenaren arabera Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegia aplikatu behar zaien subjektu pasiboiei.

2. Foru arau honetan xedatzen dena inolaz ere ez zaie aplikatuko banku fundazioei (horiek beren araubide berezia dute).

3. artikulua. Araudi osagarria

Foru arau honetan arautzen ez den guztirako Arabako Lurralde Historikoko zergen arloko araudia aplikatuko da, orokorrean.

II. TITULUA IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEAK ETA ZERGA ARAUBIDEA

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

4. artikulua. Irabazteko xederik gabeko entitateak

Foru arau honen ondorioetarako, honako hauek irabazteko xederik gabeko entitateak dira, hurrengo artikuluko baldintzak betez gero:

a) Onura publikokotzat jotako fundazioak eta elkarteak, egoitza Espainiako lurraldean dutenak, eta haien federazioak eta elkarteak.

b) Egoitza Espainiako lurraldean ez eduki arren, Espainiako lurraldean establezimendu iraunkor baten bidez diharduten entitateak, baldin eta beren forma juridikoa aurreko a) letrako entitateenaren antzekoa bada.

Horretatik kanpo daude egoitza zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean duten entitateak, kasu honetan izan ezik: egoitza Europar Batasuneko estatu batean edukitzea eta frogatzea arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela eratzeko eta jarduteko.

c) Egoitza Europar Batasuneko estatu batean edo Espainiarekin zerga informazioaren truke efektiboa daukan Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten entitateak, baldin eta Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe badihardute eta beren forma juridikoa aurreko a) letrako entitateenaren antzekoa bada.

Aurreko paragrafoan xedatzen denari dagokionez, zerga informazioaren trukea honen arabera ulertu behar da: otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergenak, hamabosgarren xedapen gehigarriko 4. apartatuan ezartzen duena.

Horretatik kanpo daude egoitza zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean duten entitateak, kasu honetan izan ezik: eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela frogatzen duenean.

5. artikulua. Irabazteko xederik gabeko erakundeek bete beharreko baldintzak

Aurreko artikuluan aipatzen diren entitateek honako baldintza hauek bete behar dituzte irabazteko xederik gabeko entitatetzat jotzeko:

1. [\(1\)](#) Interes orokorreko xedeak edukitzea. Honako hauek dira, besteak beste, interes orokorreko jarduerak: giza eskubideen eta printzipio etikoak eta demokratikoak defendatzea, batez ere terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak defendatzea; erakundeak sendotzea; gizartegintza eta gizarte inklusioa sustatzea; helburu zibikoak, hezkuntzakoak, kulturalak, zientifikoak, kirolekoak, osasunekoak eta lan arlokoak; garapenerako lankidetzak eta hezkuntza; ingurumena eta ondare publikoa zaintzea; ekonomia soziala edota enpresa ekintzailak bultzatzea; lehen sektorea, industria eta zerbitzuak garatzea; informazioaren gizartea garatzea; ikerkuntza zientifikoa eta garapen teknologikoa; arrazoi fisikoak, ekonomikoak, kulturalak edo beste era batekoak direla eta baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen sostengua eta laguntza ematea; aukera berdintasuna sustatzea; emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzea; indarkeria matxistak ezabatzeko eta horien biktimak diren emakumeei laguntzeko lan egitea; garapen komunitarioa; Euskadiko hizkuntza eta kultura aniztasuna; animaliak defendatzea eta babestea; boluntariotza aldezteak; tolerantzia defendatzea.

2. Jarraian azalduko diren errenten eta diru sarreraren ehuneko 70 gutxienez interes orokorreko xedeak lortzeko erabili behar dute:

a) Egiten dituzten ustiapen ekonomikoen errentak.

b) Beren jabetzako ondasunak edo eskubideak eskualdatuta lortzen dituzten errentak.

Errenta horien kalkuluan ez dira sartuko:

1) Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketa lortutakoak, entitatearen jardura edo helburu nagusia ondasun horietan egiten denean, baldin eta eskualdatze horren zenbatekoa halako ondasunetan eta eskubideetan inbertitzen bada berriro.

2) Titulu, balio, eskubide ekonomiko edo ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketa bidez lortzen direnak, baldin eta ondare zuzkiduraren barrukoak badira edo irabazteko xederik gabeko entitatearen fundazio edo estatutu helburuei zuenean eta modu iraunkorrean lotuta badaude, betiere kontraprestazioa zuzkidurako ondasunetan edo eskubideetan edo ukipen berarekin berriz inbertitzen badira.

c) Bestelako kontzeptuen bidez lortzen diren sarrerak, sarrera horiek lortzeko egindako gastuak kendu ondoren.

2. zenbaki honetan arautzen dena zenbatzeko, kontabilitateko emaitza hartuko da aintzat, honako hauek kontuan hartuta:

- Sarreraren kalkuluan ez dira kontuan hartuko entitatea eratzeko unean edo geroago ondareko zuzkidura moduan jasotako ekarpenak eta dohaintzak.

- Gastuak kalkulatzeko ez dira zenbatuko irabazteko xederik gabeko entitatearen estatutuetakoko xedeak edo beraren xedea betetzeko egindako gastuak, honako hauek, besteak beste: amortizaziorako zuzkidurak eta xedeei lotutako ibilgetuko elementuen narriaduraren ondoriozko galerak. Halaber, jarduera guztien gastu arruntaren zenbatekotik estatutuetakoko eta eraketako xedeak betetzeko egiten diren jarduerari dagokien zati proportzionala ere ez da zenbatu behar.

Gastu arruntetan honako hauek sartzen dira: kanpoko zerbitzuen gastuak, langile gastuak, finantza gastuak, zerga gastuak eta administrazioko eta kudeaketako beste gastu batzuk. Administrazio eta kudeaketako gastutzat joko dira fundazioaren ondareko ondasunen eta eskubideen administrazioak eta kudeaketak eragiten dituen gastuak, bai eta indarrean dagoen legeriaren arabera patronatuko kideei ordaina jasotzeko eskubidea ematen dieten gastuak ere. Gastu horiek guztiek erregelamenduz ezarriko diren mugak daukate.

Baldintza hau errentak eta diru sarrerak lortzen diren ekitaldia hasten denetik ekitaldi hori amaitu ondoko lau urteetan bete beharko da.

3. Gainerako errentak eta diru sarrerak ondare zuzkidura edo erreserbak gehitzeko erabili behar dituzte, administrazio eta kudeaketako gastuen kenkaria aplikatu ondoren, behar denean, erregelamenduz ezartzen diren mugekin. Baldintza hau betetzeko epealdia aurreko 2. zenbakiko azken paragrafoan ezartzen dena izango da.

4. Egiten duten jarduera ezin da izan beren xedearekin edo estatutuetakoko helburuekin loturik ez dagoen ustiapen ekonomikoa egitea. Baldintza hau betetzat joko da entitatearen xedearekin edo estatutuetakoko helburuarekin lotuta ez dauden ustiapen ekonomiko guztien ekitaldiko eragiketen bolumena ez bada entitatearen eragiketa guztien bolumenaren ehuneko 40 baino gehiago.

Foru arau honen ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko entitate batek ustiapen ekonomikoa egiten du, baldin eta produkzio bideak edo giza baliabideak (edo horiek guztiak) bere kontura antolatzen baditu ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzeko. Ondorio horietarako, entitatearen ondare higiezinaren errentamendua ez da ustiapen ekonomikoa.

5. (2) Entitateko fundatzaileak, elkartekideak, patronatu kideak, estatutu ordezkariak, gobernu organoetako kideak eta ezkontideak, izatezko bikotekideak eta haien senideak, laugarren gradurainokoak (gradu hori barne), ezin dira izan entitateak egiten dituen jarduera nagusien hartzaileak eta, gainera, ezin dute eduki baldintza berezirik zerbitzuakerabiltzeko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko honako hauei: ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerak; balio erantsiaren gaineko zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak 20. artikuluko Bat apartatuko 8. eta 13. zenbakietan, hurrenez hurren, aipatzen dituen gizarte laguntzako edo kirol arloko jarduerak; eta euskal kultura ondareko edo Espainiako historia ondareko ondasunak kontserbatzeko eta birgaitzeko helburua duten fundazioak, betetzen baldin badituzte Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, hurrenez hurren, ezarritako eskakizunak, edo dagokien autonomia erkidegoko arau aplikagarriaren ezarritakoak.

6. Ugazabaren, estatutu ordezkariaren eta gobernu edota administrazio organoko kidearen karguak doakoak izan behar dira; nolana ere, karguaren ondorioz egin

beharreko gastuak itzultzeko eskubidea edukiko dute, ondo justifikatuz gero. Gainera, kontzeptu honengatik jasotzen diren zenbatekoek ezin dituzte gainditu pertsona fisikoen errentarengaineko zergaren araudian zergaren kargatik salbuetsitako saritzat hartzeko ezartzen diren mugak.

Ugazabek, estatutu ordezkariak eta gobernu edota administrazio organoko kideek entitatearen ordainsariak jaso ahal izango dituzte zerbitzuak egiteagatik (lan harremanaren esparruan egindako zerbitzuak barne), baldin eta zerbitzuok ez badute zerikusirik patronatuko edo ordezkaritza organoko kide modura dituzten egitekoekin eta, gainera, entitateari aplikatzen zaizkion arauetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira. Pertsona horiek ezin izango dute partaidetzarik eduki entitatearen emaitza ekonomikoetan, ez berek zuzenean, ez bitarteko pertsona edo entitateen bidez.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ordainsariak zentzuzkoak izan behar dira, kontuan hartuta entitateak ez daukala irabazteko xederik.

Zenbaki honetan xedatzen dena entitateak partaidetza daukan merkataritzako sozietateetan haren ordezkaritza aritzen diren administratzaileei ere aplikatuko zaie, administratzaileak jasotzen duen ordainsaria entitateari itzultzen dionean izan ezik.

Hori gertatzen denean, administratzaileak jasotako ordainsaria pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kargatik salbuetsita egongo da eta ez da egongo zerga horren konturako atxikipenik egin beharrik.

7. Eskuzabaltasunez jardun behar dute. Entitateak eskuzabaltasunez diharduela frogatuztat joko da baldin eta, aurreko 6. zenbakiko bigarren paragrafoan xedatzen dena ez ezik, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Entitatea kudeatzen eta administratzen duten pertsonak ezin dute eduki partaidetzarik entitatearen emaitzetan, ez berek zuzenean, ez bitarteko pertsonen bidez.

Entitatea handia bada eta ondorioz pertsona batzuk kontratatzen baditu bere jardun eremuan erabakiak hartzeko, baldintza hau betetzat joko da, hala ere.

b) Entitateak ez du mozkin banaketarik egin behar.

c) Artikulu honetako 5. zenbakiko lehen paragrafoan aipatzen diren pertsonak eta Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera haiekin lotuta dauden pertsonak eta entitateek ezin dute eduki partaidetzarik entitatearen interesak edo ondare elementuak ukitzen dituzten negozio juridikoetan, ez berek zuzenean, ez bitarteko pertsonen bidez.

8. [\(1\)](#) Entitatea deseginez gero, haren ondare osoa mezenasgoaren onuradun izan daitezkeen entitateetako bati eman behar zaio (entitate hauek foru arau honen 19. artikuluan aipatzen dira) edo, bestela, interes orokorreko xedea daukan fundazio izaerarik gabeko erakunde publiko bati.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, irabazteko xederik gabeko entitatea deseginez gero, ondarea aurrezki kutxa edo banku fundazio baten gizarte lanerako bideratu ahal izango du, baldin eta hori berariaz ezarrita badago entitatearen fundazio negozioan edo estatutuetan.9. Entitatea azkenduz gero, araubide juridikoak ezin du aukerarik eman haren ondarea ekarpena egin zuenari edo beraren ondorengoei edo legatu hartzaileei itzultzeko; salbuespena: ezarrita egotea ondarea foru arau honen 19. artikuluan aipatzen diren mezenasgoaren onuradunetako bati itzultzeko aukera.

10. Erregistro egokian inskribatuta egon behar dira.

11. Aplikatzen zaizkien arauetan edo, bestela, Merkataritza Kodean eta xedapen osagarrietan ezartzen diren kontabilitateko betebeharrak bete behar dituzte.

12. Legerian kontuak emateaz ezartzen diren betebeharrak bete behar dituzte.

13. Urtero memoria ekonomiko bat egin behar dute eta bertan ekitaldiko diru sarrerak eta gastuak zehaztu behar dituzte, kategorien eta proiektuen arabera banakatuta, eta merkataritzako entitateetan dauzkaten partaidetza ehunekoen berri eman behar dute; bestela, aplikatzen zaien kontabilitateko araudiaren arabera aurkeztu behar duten memorian adierazi behar dute informazio hori.

Besterik ezarri ezean, memoria hau sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu behar da. Beraren edukia, forma eta gainerako alderdiak erregelamendu bidez finkatuko da; horrez gainera, erregelamenduan zehaztuko da zer kasutan ez dagoen baldintza hau bete beharrik, irabazteko xederik gabeko entitatea txikia izateagatik.

Memorian nahitaez sartu behar dira edozein kontzepturengatik ugazabei, estatutu ordezkariari eta gobernu edota administrazio organoetako kideei emandako ordainsariak, lansariak eta zerbitzuen sariak, bai eta hirugarrenei egindako ordainketak ere.

6. artikulua. Zerga egoitza

Irabazteko xederik gabeko entitate baten zerga egoitza beraren egoitza soziala da, baldin eta bertan badaude zentralizatuta entitatearen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza. Bestela, entitatearen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza egiten diren lekua da zerga egoitza.

Aurreko irizpideei jarraiki zerga egoitza zehaztea ezinezkoa denean, entitatearen ibilgetu gehiena Euskal Autonomia Erkidegoan badago baina Araban beste bi lurralde historikoetan baino ibilgetu gehiago badago, beraren zerga egoitza Araban dagoela pentsatuko da.

II. KAPITULUA SOZIEATEEN GAINKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINKO ZERGA

7. artikulua. Aplikatuko den araudia

1. Foru arau honetako 4. artikuluko b) letran aipatzen diren entitateei kapitulu honetan xedatzen dena aplikatuko zaie, kontuan edukita sozietateen gaineko zergaz ezartzen denak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarako balio duela.

2. Foru arau honetako 4. artikuluko c) letran aipatzen diren entitateei Irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien abenduaren 23ko 49/2002 Legeak II. tituluko II. kapituluan xedatzen duena aplikatuko zaie, kontuan edukita sozietateen gaineko zergaz ezartzen denak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarako balio duela.

8. artikulua. Salbuetsitako errentak

Foru arau honetako 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko entitateek lortzen dituzten errentak sozietateen gaineko zergaren kargatik salbuetsita egongo dira honako kasu hauetan:

1. Honako diru sarrera hauen ondoriozkoak:

a) Entitatearen helburuetan laguntzeko jasotako dohaintzak, ondare dohaintzaren kontzeptuan jasotako ekarpenak edo dohaintzak ere barne, entitatea sortzeko unean edo geroago, eta foru arau honetako 28. artikuluan eta Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrean aipaturiko publizitate babeseko kontratuetan araturiko enpresa lankidetzako hitzarmenen eraginez jasotako dirulaguntzak.

b) Kideek, laguntzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta salbuetsita ez dagoen ustiapen ekonomiko baten ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubide bati ez dagozkio.

c) Dirulaguntzak, salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoak finantzatzeko direnak izan ezik.

2. Entitatearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozenak, hala nola, sozietateen dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak.

3. Edozein titulu dela bide ondasunak edo eskubideak eskuratuta edo eskualdatuta lortzen direnak, are entitatea desegin eta likidatuta lortzen direnak ere.

4. Hurrengo artikuluan aipatzen diren ustiapen ekonomiko salbuetsietan lortzen direnak.

5. Foru arau honetako 10. artikuluko 1. apartatuan xedatzen denaren arabera zerga oinarrian sartu behar ez direnak.

6. Zergen arloko araudiaren arabera irabazteko xederik gabeko entitateei esleitu edo egotzi behar zaizkienak, artikuluko honetako aurreko zenbakietako errenta salbuetsietatik datozenak.

9. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak

Irabazteko xederik gabeko entitateek honako ustiapen ekonomiko hauen bidez lortzen dituzten errentak sozietateen gaineko zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Entitatearen helburua edo xedea betetzeko egiten direnak.

b) Irabazteko xederik gabeko entitatearen ustiapen ekonomiko salbuetsien edo estatutuetako helburua edo xedea betetzeko jarduera ekonomikoen lagungarriak edo osagarriak direnak.

Ustiapen ekonomikoak ez dira lagungarriak ez osagarriak honako kasu honetan: haietan guztietan ekitaldian egindako eragiketen bolumena entitatearen eragiketa guztien bolumenaren ehuneko 30 baino gehiago denean.

c) Garrantzi txikikoak. Garrantzi txikiko ustiapenak dira egutegiko ekitaldiko eragiketen guztirako zenbatekoa 50.000 eurotik beherakoa dutenak.

10. artikulua. Zerga oinarria zehaztea

1. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga oinarrian salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen errentak baizik ez dira sartuko.

2. Honako hauek ez dira gastu kengarritzat hartuko:

a) Salbuetsitako errentei soilik egozten zaizkien gastuak.

Jarduera guztien gastuetako batzuk salbuetsi gabeko errentei egotzi ahal bazaizkie, gastu horiek kengarriak izango dira eta kenkaria eragingo dute salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetako eragiketen eta entitatearen eragiketa guztien arteko proportzioaren arabera (ehunekoak).

b) Zergapean dauden ustiapen ekonomikoei atxikita ez dauden ondareko elementuak amortizaziorako edo haien narriaduraren ondoriozko galeretarako bideratzen diren kopuruak.

Ondare elementu bat neurri batean bakarrik badago atxikita salbuetsitako jarduerak egiteko, hura jarduera egiteko atxikita dagoen ehunekoari dagokion zenbatekoa ez da kengarria.

c) Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen emaitzen eta, bereziki, soberakinen aplikazioa osatzen duten zenbatekoak, jarduera salbuetsiak egiteko erabiltzen direnak. Foru_ arau honetako 5. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren helburuak betetzearen ondorioz entitateak kontabilitate emaitza negatiboa duenean, kengarria izango da ekitaldian aplikatutako ustiapenaren soberakinaren zenbatekoa, emaitza negatiboa muga dela.

d) Sozietatearen gaineko zergaren araudiaren arabera kengarriak ez diren gastuak.

11. artikulua. Balorazio arauak

Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 101.1.c) artikuluan ezartzen duen araubidea foru arau honetako 5. artikuluko 8. zenbakian aipatzen den kasuan aplikatu ahal izango da, baldin eta Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan ezartzen diren gainerako baldintzak betetzen badira.

12. artikulua. Karga tasa

Salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoen errenten zerga oinarri positiboari ehuneko bederatziko karga tasa aplikatuko zaio.

13. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak

Sozietateen gaineko zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoekin errentak lortzen dituzten irabazteko xederik gabeko entitateek zerga hori arautzen duten arauak ezarritako kontabilitateko betebeharrak bete beharko dituzte. Entitate horien kontabilitatea salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei dagozkien sarrerak eta gastuak identifikatzeko moduan arteztu behar da.

14. artikulua. Atxikipenik aplikatzen ez zaien errentak

Foru arau honen bidez salbuetsita dauden errentei ez zaie atxikipenik egingo, eta haien konturako sarrerarik ere ez da egingo. Erregelamendu bidez ezarriko da nola frogatu behar duten irabazteko xederik gabeko entitateek ez dutela atxikipenik egin beharrik.

15. artikulua. Aitortu beharra

Titulu honetan ezartzen den zerga araubidea hautatzen duten entitateek beren errenta guztiak (salbuetsiak zein salbuetsita ez daudenak) aitortu beharko dituzte sozietateen gaineko zerga dela eta.

16. artikulua. Zerga araubidearen aplikazioa

1. Irabazteko xederik ez duten entitateek titulu honetan ezartzen den zerga araubideari heldu ahal diote. Hori egiteko modua eta epealdia erregelamendu bidez ezarriko dira.

Araubide horri heldu nahi izatera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: eratze eskrituraren edo aktaren kopia; entitatearen estatutuen kopia; xedeak azaltzen dituen memoria; entitatea erregistro egokian inskribatuta dagoelako ziurtagiria; erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen legezko ordezkariak sinatua, foru arau honetako 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen direla dioena.

«Mortis causa» egintzen bidez eraturako fundazioen kasuan, eratze eskrituraren kopia gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 Legeak 8. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duenaren arabera eskritura horren baldintza berak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da.

Zerga administrazioak sortze klausulen eta estatutuetako klausulen edukia zehatz-mehatz ezagutzeko behar diren argibideak eta datu osagarriak eskatu ahal izango dizkie interesdunei.

2. Hautapena egindakoan entitatea mugaegunik gabe geldituko da araubide honi lotuta, hurrengo zergaldietan, baldin eta foru arau honetako 5. artikuluko baldintzak betetzen bada, harik eta erregelamenduz ezarrikoaren arabera araubideari uko egin arte.

3. Zerga araubide hau aplikatuko bada, ezinbestekoa da horren betekizunak eta egitatezko baldintzak betetzea. Entitateak hala dela frogatu beharko du.

4. Foru arau honetako 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ezean, entitateak urratzea gertatzen den ekitaldiko edo ekitaldietako zerga hauen kuota guztiak ordaindu beharko ditu, kasuan kasuko araudiekin bat etorritik: sozietateen gaineko zerga, toki zergak eta ondare eskualdatzeen eta dokumentaturiko egintza juridikoen gaineko zerga. Kuotekin batera sortutako berandutze interesak ere ordaindu beharko dira.

Apartatu honetan ezartzen den betebeharra, foru arau honetako 5. artikuluko 2. zenbakian ezartzen den betekizunari dagokionez, behar bezala aplikatu ez diren emaitzak eta diru sarrerak lortu diren ekitaldiko kuotei aplikatuko zaie, eta artikuluko bereko 8. zenbakian ezartzen den betekizunari dagokionez, urratzea gertatu den ekitaldiko eta aurreko bost ekitaldietako kuotei aplikatuko zaie. Gainera, bidezko zehapenak ere jarri ahal izango dira.

17. artikulua. Zehapen araubidea

1. Artikulu honetako hurrengo apartatuetan xedatzen dena eragotzi gabe, zergen arloko urratzen zehapenak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duten erregelamendu xedapenetan ezartzen denaren arabera ezarriko dira.

2. Foru arau honetako 5. artikuluko 13. zenbakian aipatzen den memoria ekonomikoa ez egitea edo ez aurkeztea zergen arloko arau haustea da eta horrek berekin ekarriko du diru isun finkoa: entitateak zergaldian egin dituen eragiketen bolumenaren ehuneko 0,5, gutxienez 500 euro.

Orobat, zergen arloko arau haustea da memoria ekonomikoa epez kanpo aurkeztea da eta horrek berekin ekarriko du diru isun finkoa: entitateak zergaldian egin dituen eragiketen bolumenaren ehuneko 0,25, gutxienez 250 euro.

Entitate batek arau hauste bat egin ondoko bost urteetako zergaldi batean atzera ere arau hauste bera egiten badu, zehazpen modura ezarriko zaio titulu honetan ezartzen den araubidea ezin aplikatu izatea; horrez gainera, paragrafo honetan aipatzen den zehapena administrazio bidean irmo bihurtzen denetik aurrera, bost urtean ezin eskatu izango du araubide hau aplikatzeko.

3. [\(1\)](#) Foru arau honen 16. artikulua 1. apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean esandakoa ez betetzea ere zergen arloko arau haustea da (salbuespena: memoria ekonomikoa egin edo aurkeztu beharra, 5. artikulua 13. zenbakian aipatzen dena). Hori gertatuz gero, entitateari zehapen modura ezarriko zaio titulu honetan ezartzen araubidea ezin aplikatu izatea; gainera, paragrafo honetan aipatzen den zehapena administrazio bidean irmo bihurtzen denetik aurrera, bost urtean ezin eskatu izango du araubide hau aplikatzeko.

III. KAPITULUA UDAL ZERGAK

18. artikulua. Udal zergak

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren araudiari jarraiki, zerga hori ordaintzetik salbuetsita daude irabazteko xederik gabeko entitateen titulartasuneko ondasunak, sozietateen gaineko zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei atxikitako ondasunak ez beste guztiak.

2. Irabazteko xederik gabeko entitateek ez dute jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaindu behar foru arau honetako 9. artikuluan aipatzen diren ustiapen ekonomikoengatik. Alabaina, entitate horiek zergaren matrikularen altaren aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, jarduera egiteari uzten badiote, bajaren aitortpena ere bai.

3. Irabazteko xederik gabeko entitate batek legez hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ordaindu behar badu, horren gehikuntzak zergaren kargatik salbuetsita daude.

Irabazteko xederik gabeko entitate batek lursaila eskualdatzen badu edo lursail baten jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealek eratzen edo eskualdatzen baditu kostu bidez, zerga horren kargatik salbuetsita egoteko ezinbestekoa da lursailak ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsita egoteko ezarritako baldintzak betetzea.

4. Artikulu honetan arautzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, irabazteko xederik gabeko entitateek bidezko zerga administrazioari, udal eskudunari edo Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote foru arau honetako 16. artikuluko 1. apartatuan arautzen den hautapena egin nahi dutela eta, horrez gainera, titulu honetako zerga araubidearen betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela.

5. (1) Bidezko zerga administrazioak egiaztatzeko dituen ahalmenak eragotzi gabe, artikulu honetan ezartzen diren salbuespenak aplikatuko zaizkie, halaber, foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak bete eta honako hauek aplikatzen dituzten entitateei: 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, fundazioen eta babesletza jardueren zerga araubidea arautzen duena; 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzkoa; 4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa; 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzkoa; edo lehen aipatutakoak ordeztzen dituztenak, baita foru arau honen 19. artikuluan 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren entitateak ere.

6. (1) Artikulu honetan xedatzen denak ez ditu eragozten udal ogasunei buruzko foru araudian eta udal zergak arautzen dituzten foru arauetan ezartzen diren salbuespenak.

III. TITULUA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK

I. KAPITULUA MEZENASGOAREN ONURADUN DIREN ENTITATEAK

19. artikulua. Mezenasgoaren onuradun diren entitateak

1. Titulu honetako II. eta III. kapituluetan arautzen diren zerga pizgarriak honako entitate eta erakunde hauen alde egiten diren emariei, dohaintzei eta doako zerbitzugintzei aplikatuko zaizkie, kapitulu horietan azaltzen diren kasuetan, baldin eta titulu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira:

a) (1) Irabazteko asmorik gabeko entitateak, hain zuzen ere foru arau honen II. tituluaren ezartzen den zerga araubidea aplikatu ahal zaienak, eta foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela, beste foru lurralde bateko edo lurralde erkideko irabazteko asmorik gabeko indarreko zerga araubidea aplikatzen dutenak.

b) (1) Arabako Foru Aldundia, gainerako foru aldundiak, Estatuak, autonomia erkidegoak, toki erakundeak eta, orobat, erakunde autonomoak eta lehen aipatutako administrazioen antzekoak diren erakunde autonomoak.

c) Unibertsitateak eta haiei atxikitako zentroak.

d) Instituto Cervantes eta Institut Ramon Llull entitateak eta berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan haien antzeko xedeak dituzten entitateak.

e) Euskaltzaindia, Instituto de España entitatea eta hari atxikitako errege akademiak, eta berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten entitateak.

f) Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea-Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

g) Espainiako Komite Olinpikoa eta Espainiako Komite Paralinpikoa.

h) Espainiako Gurutze Gorria eta Estatuko Itsuen Erakundea.

i) Euskal administrazio publikoen mendeko ikerketa-erakunde publikoak.

2. Halaber, titulu honetako II. eta III. kapituluetan arautzen diren zerga pizgarriak honako entitate hauen alde egiten diren emariei, dohaintzei eta doako zerbitzugintzei aplikatuko zaizkie, baldin eta titulu honetan ezartzen diren baldintzak eta, batez ere, 27. artikuluan xedatzen dena betetzen badituzte:

a) Foru arau honetako 4. artikuluko c) letran aipatzen diren entitateak, foru arau honek 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betez gero.

b) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan irabazteko xederik gabe gizarte edo laguntza lanetan ari diren entitateak, aurreko apartatuko b) eta i) letretan ezartzen dituen helburu berak dituztenak.

II. KAPITULUA EMARIEN, DOHAINTZEN, EKARPENEN ETA DOAKO ZERBITZUGINTZEN ZERGA ARAUBIDEA

20. artikulua. Emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarriak

1. Titulu honetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko eskubidea sortuko dute aurreko artikuluan aipatzen diren erakundeen eta entitateen alde egiten diren honako emari, dohaintza, ekarpen ezeztuezin (huts eta sinple) eta doako zerbitzugintza hauek:

a) Dirutan, ondasunetan eta eskubidetan egiten diren emariak eta dohaintzek.

b) Elkarteen afiliazio kuotek, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen ez dutenek.

c) Ondasun, eskubide edo baloreen gainean kontraprestaziorik gabe eratzen diren gozamen-eskubide errealek.

d) Euskal Kultur Ondareko ondasunen emariak eta dohaintzek, EAEko Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan edo Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak jasotzen duen EAEko Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatuta; Espainiako Ondare Historikoko ondasunen emariak eta dohaintzek, Kultur Intereseko Erregistro Orokorrean inskribatuta edo, bestela, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeari dagokion Inbentario Orokorrean barneratuta badaude; eta autonomia erkidegoetako kultur ondasun kalifikatu edo inskribatuen emariak eta dohaintzek, autonomia erkidego horietako arau erregulatzaileetan ezarritakoarekin bat etorriz.

e) Arabako Foru Aldundiaren iritziz bermatutako kalitatea duten kultur ondasunen emariak, dohaintzek edo aldi baterako doako lagapenek, besteak beste museoetako jarduerak egitea eta ondare historiko eta artistikoa sustatu eta zabaltzea helburu duten entitateen aldekoak badira. Aldi baterako doako lagapenak ezin dira izan 25 urte baino gehiagorako.

f) Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboak (establezimendu iraunkorraren bidez dihardutenek) egiten dituzten doako zerbitzugintzek, foru arau honetako 23. eta 24.2 artikuluetan xedatzen denaren ondorioetarako soil-soilik.

g) [2](#) Ondasun higigarri edo higiezin baten erabilera denbora jakin baterako lagatzea, kontraprestaziorik gabe.

2. Dohaintza ezeztatzen bada Kode Zibilean aipatzen diren arrazoiatariko bat dela medio, dohaintza emaileak aplikatutako kenkariei dagozkien kuotak eta bidezko berandutza interesak ordainduko ditu ezeztapena gertatzen den zergaldiaren barruan.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena honako kasu honetan aplikatuko da: bazkide bat bere borondatez banandu eta kideztaren kuota arruntak ez diren ekarpenen ondorioz ondare partaidetza jasotzen duenean.

3. Artikulu honetan aipatzen diren emariak, dohaintzek, ekarpenek eta doako zerbitzugintzek ez dute galduko beren izaera egiten dituzten pertsonen aldeko konpentsazio sinbolikoa edo erreputazio konpentsazioa gertatzen denean, baldin eta konpentsazioaren xede nagusia publizitatea edo propaganda ez bada.

21. artikulua. Emarien, dohaintzen, ekarpenen eta doako zerbitzugintzen kenkarien oinarria

1. Foru arau honetako 19. artikuluan aipatzen diren erakundeen eta entitateen alde egiten diren emarien, dohaintzen, ekarpenen eta doako zerbitzugintzen kenkarien oinarria honako hau izango da:

a) Diruzko emarrietan eta dohaintzetan, haien zenbatekoa.

b) Ondasunen edo eskubideen emarrietan eta dohaintzetan, eskualdaketa gertatzen denean duten kontabilitate balioa edo, bestela, ondarearen gaineko zergari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera zehaztutako balioa.

c) Ondasun higiezinaren gozameneko eskubide erreala eratzen denean, honela kalkulaturako urteko zenbatekoa: gozamenaren iraunaldiko zergaldi bakoitzean ehuneko bira aplikatu behar zaio katastro balioari, zergaldi bakoitzeko egun kopuruaren proportzioan.

d) Baloreen gozameneko eskubide erreala eratzen denean, gozamenaren iraunaldiko zergaldi bakoitzean gozamenaren jaso dituen dibidenduen edo interesen urteko zenbatekoa.

e) Beste ondasun eta eskubide batzuen gozameneko eskubide erreala eratzen denean, ekitaldi bakoitzeko diruaren legezko interes tasa ondasunak edo eskubideak gozamina eratzean duen balioari aplikatzearen emaitzako urteko zenbatekoa (balio hori ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko arauak aplikatuz zehaztuko da).

f) Euskal Herriko Kultur Ondarearen barruko ondasunen dohainetan edo dohaintzetan, Eusko Jaurlaritzak egindako balioespena; Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunen dohainetan edo dohaintzetan, Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak egindako balorazioa, eta autonomia erkidegoetako Ondare Historikoaren barruko Ondasunen dohainetan eta dohaintzetan, organo eskudunek egindako balioespena.

Aurreko paragrafoan aipatutako organoek baloraziorik egiten ez badute, Arabako Foru Aldundiak egingo du.

g) Bermatutako kalitateko obren emarietan eta dohaintzetan, Arabako Foru Aldundiak egindako balioespena. Erakunde berak egingo du, baita ere, aldi baterako dohainik lagatzen diren ondasunen balioespena; kasu honetan, kenkariaren oinarria hari urtebete oso bakoitzeko ehuneko bira aplikatuz zehaztuko da.

h) Doako zerbitzugintzetan, zerbitzugileak jasaten duen kostua, lagatuko ondasunen amortizazioa barne (behar den kasuetan).

i) [\(2\)](#) Foru Arau honen 20. artikulua 1. apartatuaren g) letran aipatzen den ondasun higigarri edo higiezin baten erabilera lagatzean, lagatzaileak lagapen aldiaren ondoren horiekin lotuta jasandako gastuen zenbatekoa sartuko da kenkari oinarrian, betiere gastu horiek fiskalki kengarriak badira, kostu bidez laga badira, eta tributuek eta kanpoko kapitalen interesek eta gainerako finantzaketa gastuek bestelakoak badira, eta behar bezala kontabilizatuta badaude lagatzailea kontabilitatea eramatera behartuta dagoenean, Merkataritza Kodearen edo legeria baliokidearen arabera.

2. Aurreko apartatuan xedatzen denarekin bat etorritik zehaztutako balioaren gehieneko muga eskualdatzen den ondasunak edo eskubideak eskualdatzean merkaturatu daukan balio arrunta izango da.

22. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotaren kenkaria

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eskubidea edukiko dute kuota osotik kentzeko foru arau honek 21. artikuluan xedatzen duenaren arabera kalkulaturako kenkari oinarriaren ehuneko 30.

2. Kenkari honen oinarria mezenasgoaren kenkariaren guztirako oinarrian sartu behar da eta inolaz ere ezin da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriaren ehuneko 35 baino gehiago. Ezarritako muga gainditzen delako kenkaririk gabe geratzen diren diru kopuruak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autoliquidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

Artikulu honen ondorioetarako, zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da (bi oinarriok Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak arautzen ditu, 65. artikuluan eta 66. artikuluan, hurrenez hurren).

3. Artikulu honetan xedatzen denaren aplikazioa autoliquidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 105. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako (artikulu horretako 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatzen dena aplikatu behar da).

23. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkaria

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek eskubidea edukiko dute kuota likidotik kentzeko foru arau honek 21. artikuluan xedatzen duenaren arabera kalkulaturako kenkariaren oinarriaren ehuneko 30.
2. Artikulu honetan ezartzen den kenkariari Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 67. artikuluan ezartzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.
3. Artikulu honetan xedatzen denaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 128. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako (artikulu horretako 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatzen dena aplikatu behar da).

24. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuotaren kenkaria

1. Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 21. artikuluko 1. apartatuan ezartzen duen kenkaria aplika dezakete.
2. Establezimendu iraunkorraren bitartez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek foru arau honetako 23. artikuluan xedatzen dena aplika dezakete.

25. artikulua. Emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintzen errenten salbuespena

1. Dohaintza emailearen edo ekarlearen errenta kargatzen duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik, sozietateen gaineko zergatik eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira foru arau honen 20. artikuluan aipatzen diren emariak, dohaintzak, ekarpenak eta doako zerbitzugintzak eginez sortzen diren ondare irabaziak eta errenta positiboak.
2. Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira lurra eskualdatzeak edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratzeak edo eskualdatzeak sortzen dituen gehikuntzak, eragiketa horiek foru arau honen 20. artikuluan aipatzen diren emari, dohaintza eta ekarpen kengarrien ondoriozkoak direnean.

26. artikulua. Emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarrien justifikazioa

1. Emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarriak egin direla justifikatzeko, onuradunak horretarako berariaz onartzen den eredu informatiboa aurkeztu beharko du.

Eredu informatiboan dohaintza emailearen eta hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiak eta identifikazio datuak agertu behar dira, besteak beste.

2. Entitate onuradunak zerga administrazioari bidali beharko dio aurreko apartatuan aipatzen den eredua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez ezartzen diren epealdietan eta bertan zehazten den moduan. Ereduarekin

batera honako informazio edo dokumentazio hauek ere aurkeztu beharko ditu (kasuan kasukoa):

- a) Emaria edo dohaintza egin den data, diruzkoa izanez gero.
- b) Emaria edo dohaintza diruzkoa ez bada, ondasuna eman dela egiaztatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiriren bat.
- c) Dohaintza hartzen duen entitateak emandakoa zertarako erabiliko duen bere xedea betetzeko.
- d) Dohaintza ezeztazina delako aipamen berariazkoa, dohaintzen ezeztapena arautzen duten aginduzko arau zibiletan ezarritakoa gora behera.
- e) Doako zerbitzugintzetan, zerbitzua nolakoa den eta hura egin duen entitateak kostuari buruz egindako ziurtagiria.

3. Entitate onuradunak baimena eskatu ahal izango dio zerga administrazioari artikuluko honetan aipatzen den eredu informatiboan ez sartzeko emariak, dohaintzak, ekarpenak edo doako zerbitzugintzak, baldin eta ekarlek ez baditu aplikatzen titulu honetan ezarritako zerga pizgarriak eta emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintzei buruz eman beharreko informazioa lortzeko kostu handiak sortzen badizkio entitateari.

Apartatu honetan aipatzen den baimena izapidetzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da. Erregelamendu horretan entitateak aurkeztu beharko dituen datuak eta dokumentuak ere zehaztuko dira. Entitateak aurreko paragrafoan adierazten diren elementuak egiaztatu beharko ditu.

Nolanahi ere, zerga administrazioak baimena eman ondoren, entitate onuradunak pertsona edo entitate emaileari eskatu beharko dio berariaz adierazteko ez duela eskubiderik titulu honetan arautzen diren zerga pizgarriak aplikatzeko edo ez dituela aplikatuko.

27. artikulua. Egoiliar ez diren entitate batzuen aldeko emari, dohaintza, ekarpen eta doako zerbitzugintza kengarrien justifikazioa

Entitate onuraduna foru arau honen 19. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren entitateetako bat bada, emari, dohaintza, ekarpen edo doako zerbitzugintza kengarriak egin direla egiaztatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute zerga onura aplikatzen duten zergadunek:

- a) Aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatzen den eredu informatiboan agertu beharreko informazioa biltzen duen dokumentua. Behar den kasuetan, horrekin batera artikuluko horretako 2. apartatuan zehazten den informazioa edo dokumentazioa ere aurkeztu behar da.
- b) Entitate onuradunak foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen duen dokumentazioa.

III. KAPITULUA BESTE MEZENASGO MOTA BATZUK

28. (2) artikulua. Interes orokorreko jardueretako enpresen arteko lankidetzak hitzarmenak

1. Foru arau honetan xedatutako ondorioetarako, interes orokorreko jardueretarako enpresa lankidetzakohitzarmena izango da agiri bat, zeinaren bidez aurreko 19. artikuluan aipatzen diren erakundeek idatziz konpromisoa hartzen baitute jarduera horietan laguntzailearen parte hartzearen berri edozein bitartekoren bidez zabaltzeko, beren helburu edo xede espezifikoak betetzeko egiten dituzten jarduerak egiteko laguntza ekonomiko baten truke. Laguntza dirutan eman daiteke, edo gauzatan, eta laguntzailearen berezko jarduera ekonomikoa gauzatzeko egindako zerbitzu prestazio bat ere izan daiteke. Laguntzaileak ere egin ahal izango du zabalkunde hori.

Artikulu honetan zehaztutako lankidetzahitzarmenen esparruan laguntzailearen parte hartzearen berri zabaltzea ez da zerbitzu prestazio bat balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Ordaindutako zenbatekoak edo egindako gastuak gastu kengarritzat joko dira honako hauek zehazteko: erakunde laguntzailearen sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria, establezimendu iraunkorraren bidez diharduten zergadunen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen jarduera ekonomikoaren etekin garbia.

Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren laguntza ekonomikoak direla-eta ager daitezkeen errenta positiboak, hala badagokio, laguntzailearen errenta kargatzen duten zergetatik salbuetsita egongo dira.

Apartatu honetan aipatutako gastu kengarria aplikatzea autolikidazioa aurkeztean baliatu behar den aukera da, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta artikulu horietan xedatutakoa aplikatu behar da.

3. Lankidetzak hitzarmen hauek betez ordaintzen diren zenbatekoei aplikatzen zaien zerga araubidea bateraezina izango da beste zerga pizgarri batzuekin.

29. artikulua. Interes orokorreko jardueretan egindako datuak

1. Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko, establezimendu iraunkorraren bidez dihardutenen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko, foru arau honetan aipatzen diren interes orokorreko xedeetarako egindako gastuak gastu kengarriak izango dira.

Apartatu honetan aipatzen den gastu kengarriaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 128. artikuluan xedatzen duenaren edo Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 105. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako (artikulu horietan xedatzen dena aplikatu behar da).

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren interes orokorreko jardueretan egiten diren gastuen kenkaria bateraezina izango da beste zerga pizgarri batzuekin.

30. artikulua. Artelanak eskuratzea dohaintza eskaintzarako

1. Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko, establezimendu iraunkorraren bidez dihardutenen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko, partida kengarritzat hartuko da Arabako Foru Aldundiari edo Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei dohaintzan emateko eskuratzen diren artelanen eskuraketa balioa, baldin eta erakunde horiek artelanak onartzen badituzte.

Artelantzat hartuko dira, artikulu honen ondorioetarako, balio erantsiaren gaineko zergaren arautegian zehazten diren artelanak, antzinako gauzak eta bildumako gaiak, baldin eta balio historikoa edo artistikoa badute.

2. Kenkari hau egiteko, dohaintzaren eskaintza honako baldintza hauek betez egin beharko da:

a) Gehienez bost urteko epealdian, eskaintza behin betiko onartzen denetik aurrera, ondasuna dohaintza hartzaileari eskualdatzeko konpromisoa hartu beharko da. Behin betiko onartzeko, Arabako Foru Aldundiak txostena egin beharko du, ondasuna artelana denez egiaztatzeko eta balioespena egiteko. Txosten hori dohaintza eskaintza aurkezten denetik hiru hilabete pasatu baino lehen egin beharko da.

Dohaintzan emandako artelanak euskal kultura ondarearen osagai badira, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aipatzen duen Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan edo Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan errolatuta, esandako txostena Eusko Jaurlaritzari eskatu beharko zaio. Artelana Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen den ondare historikokoa bada edo autonomia erkidego bateko ondare historikokoa, txostena kasuan kasuko arautegiaren arabera eskumena daukan organoari eskatu behar zaio.

Aurreko paragrafoan aipatzen den organoek txostenik egiten ez badute, Arabako Foru Aldundiak egingo du.

Dohaintza hartzaileak dohaintza onartutakoan, ezeztazina izango da eta ondasuna ezin izango zaie laga hirugarrenei.

b) Dohaintzaren eskaintza ondasuna erosi eta hurrengo hilean egin beharko dute entitateek edo pertsonak.

c) Dohaintza hartzaileari behin betiko eskualdatu arteko aldiaren ondasuna jendearen ikusgarri eta ikertzaileen aztergarri egon beharko da, dohaintza emailearen eta dohaintza hartzailearen arteko hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

d) Aldi berean kenkari honetaz baliatzen diren pertsonak eta entitateak ezin aplikatu izango dute kenkaririk eskaintzako ondasunen narriaduraren ondoriozko galerengatik.

e) Artelanaren jabe den entitatea likidatzen bada, entitate dohaintza emaileari adjudikatuko zaio.

f) (2) Eskaintzajasetzen duen entitate dohaintza emailea foru arau honen II. tituluko I. kapitulu jasotakoetako bat bada, ezin izango diote pizgarri honi heldu haren elkartekideek, fundatzaileek, patronatu kideek, kudeatzaileek, ezkontideek eta izatezko bikotekideek, edo haietako edozeinen laugarren gradurainoko ahaideek, gradu hori barne.

3. Guztira ken daitekeen kopurua ondasunaren eskuraketa kostua izango da, edo Administrazioak finkaturiko tasazio balioa, gutxiago bada. Azken kasu horretan entitateak egindako dohaintza eskaintza kendu ahal izango du, nahi izanez gero.

4. Kenkaria hainbana egingo da konprometitutako aldi, aurreko 2.a) apartatuan ezartzen denaren arabera; ekitaldi bakoitzeko gehieneko kenkaria aldiko urteen kopurua hamarrez zatituz lortzen den ehuneko izango da.

Muga hori Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 55. artikuluan aipatzen duen zerga oinarri negatiboen konpentsazioaren aurreko zerga oinarriari aplikatuko zaio.

Enpresaburuen eta profesionalen kasuan, muga horren kalkulua egindako jarduera ekonomikoaren etekin garbiei dagokien zerga oinarri orokorraren gainean egingo da.

5. Artikulu honetan aipatzen den gastu kengarriaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 128. artikuluan xedatzen duenaren edo Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 105. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako (artikulu horietan xedatzen dena aplikatu behar da).

6. Artikulu honetan aztertutako kenkaria bateraezina izango da beste zerga pizgarri batzuekin.

IV. KAPITULUA LEHENTASUNeko MEZENASGO JARDUERAK ETA INTERES PUBLIKO HANDIKO GERTAKARIAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

1. ATALA

LEHENTASUNeko MEZENASGO JARDUERAK

31. artikulua. Lehentasuneko mezenasgo jarduerak eta programak

1. Arabako Foru Aldundiak, ekitaldi bakoitzerako, lehentasuneko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda ezarriko du foru arau honetan aipatzen diren interes orokorreko helburuetarako; era berean, jarduera edo programa horiek bete beharko dituzten betekizunak eta baldintzak eta entitate onuradunak ere ezarriko ditu.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak mezenasgo jarduerak eta programak lehentasunekotzat jo ahal izango ditu, bai bere ekimenekoak, bai beste pertsona edo entitate batzuenak, eta lortzen dituen baliabideak zuzenean kudeatu ahal izango ditu edo zeharka foru arau honek 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko entitateen parte hartzearen bidez.

Lehentasuneko jarduera edo programa baten deklarazioaren onura jasotzen duten entitateek hurrengo urteko urtarrilean txostena aurkeztu beharko dute honako hauek

azaltzeko: jasotako emarien, dohaintzen, ekarpenen eta zerbitzuen zenbatekoa; nortzuk izan diren emailleak; nola erabili duten jasotakoa interes orokorreko helburuak lortzeko.

2. Lehentasuneko mezenasgo jarduera eta programei honako zerga pizgarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorren bitartez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunekotzat jotako jardueretarako erabilitako kopuruen ehuneko 45 ken dezakete kuota likidotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzaz hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Doako zerbitzugintza bada propaganda eta publizitate gastuak egitea lehentasuneko jardueren berri zabaltzeko zuzenean, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren guztirako zenbatekoa izango da, baldin eta publizitate euskarriaren edukian berriaz aipatzen bada lehentasuneko jardueren zabalkundea. Bestela, kenkariaren oinarria gastuaren edo inbertsioaren ehuneko 25 izango da.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko beharrezkoa izango da gastua edo inbertsioa egiten duen entitateak eta entitate onuradunak batera aurkeztea eskaera bat zerga administrazioari. Eskaera horretan lehentasuneko jardueraren berri zabaltzeko proiektua beharko da eta azaldu beharko da zer ondorio lortu nahi diren interes orokorreko helburuak direla eta. Gainera, zerga administrazioak berriazko baimena eman beharko du gastua edo inbertsioa egin aurretik (horretarako prozedura erregelamenduz ezarriko da).

Letra honetan aipatzen den kenkariaren oinarrian sartzen diren kopuruak ez dira inolaz ere gastu kengarriztat hartuko entitatearen zerga oinarria kalkulatzeko.

Letra honetan arautzen den kenkariari Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 23ko 37/2013 Foru Arauak 67. artikuluan ezartzen dituen arauak aplikatuko zaizkio; kenkariaren zenbatekoa ezin da izan artikuluko horretako 1. apartatuan ezartzen den baterako mugatik gorakoa.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek lehentasunekotzat jotako jarduera eta programetarako erabilitako kopuruen ehuneko 45 kendu ahal izango dute kuota osotik (publizitate babeseko kontratuak eta lankidetzaz hitzarmenak direla bide emandako kopuruak barne).

Kenkari honen oinarria mezenasgoagatik aplikatzen diren kenkariaren oinarriari gehituko zaio; inolaz ere ezin da izan Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 91. artikuluko 2. apartatuan ezartzen duen muga baino gehiago. Ezarritako muga gainditzen delako kenkaririk gabe geratzen diren diru kopuruak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autoliquidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

Aurreko paragrafoan aipatzen den mugaren ondorioetarako, zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da (bi oinarriok Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak arautzen ditu, 65. artikuluan eta 66. artikuluan, hurrenez hurren).

c) Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga

araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 22. artikuluan xedatzen duena aplikatuko zaie.

3. Aurreko apartatuko a) eta b) letretan xedatzen denaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 105. artikuluan xedatzen duenaren eta Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 128. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako (artikulu horietan xedatzen dena aplikatu behar da).

4. Kenkariak aplikatzeko ekitaldia lehentasunekotzat jotako jarduerak eta programak egin diren ekitaldia izango da.

5. Artikulu honetan arautzen diren zerga pizgarriak ezin dira bateratu beste zerga pizgarri batzuekin.

2. ATALA

INTERES PUBLIKO HANDIKO GERTAKARIAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

32. artikulua. Interes publiko handiko gertakariak sustatzeko programak

1. Arabako Foru Aldundiak interes publiko handiko gertakariak sustatzeko programak onetsi ahal izango ditu, salbuespen moduan.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren programetako bat onesten duen foru dekretuak honako alderdi hauek arautuko ditu, gutxienez:

a) Programaren iraupena; hiru urtekoa izango da gehienez.

b) Programa betearaziko duen partzuergoa sortzea edo administrazio organoa izendatzea; horrek egiten diren gastuak eta inbertsioak programaren helburuetarako eta planetarako egokiak direla egiaztatuko du.

Partzuergo edo organo horretan nahitaez egon beharko dira ordezkatura gertakarian interesa duten administrazioak, eta ezinbestean Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila.

Ziurtagiria emateko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ordezkariak aldeko botoa eman beharko du.

c) Gertakaria sustatzeko antolatzen diren jardueren oinarritzko ildoak; hori gorabehera, ondoren partzuergoak edo administrazio organoak berariazko jardura planetan eta programetan garatu ahal izango dituzte.

3. Honako hauek izango dira programei aplikatu ahal izango zaizkien zerga onurak:

Lehena. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek (zuzeneko zenbatespenaren araubideko jarduera ekonomikoren bat egiten badituzte) eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek (establezimendu iraunkorraren bidez badihardute) zergaren kuotatik kendu ahal izango dute partzuergoak edo administrazio organoak ezarritako planak eta programak betetzeko egiten dituzten gastuen eta inbertsioen ehuneko 15, honako kontzeptu hauek direla eta:

a) Ibilgetu materialeko elementu berriak eskuratzea (lurrak ez dira inola ere horren barne hartuko).

Ez dira hartuko partzuergoak edo administrazio organoak ezarritako jarduera planak eta programak betetzeko inbertsioetat telekomunikazio eta elektrizitate zerbitzuen sareak instalatzeko edo zabaltzeko egiten direnak, eta urez, gasez eta horrelakoez hornitzeko egiten direnak ere ez.

b) Eraikinak eta bestelako eraikuntzak zaharberritzea, kasuan kasuko programarako erabiliko den eremu fisikoa hobetzeko.

Zaharberrikuntza obra horiek etxebizitzaren arloko jarduketa babestuen finantzaketari buruzko arautegian ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Gainera, arkitekturari eta hirigintzari dagokienez, programaren esparruan sartzen diren udalek berariaz ezartzen dituzten arauak bete beharko dira, bai eta programa antolatu eta betearazteko ardura duen partzuergoak edo administrazio organoak ezartzen dituenak ere.

c) Urte anitzeko gastuak egitea dena delako gertakariaren berri zabaltzeko eta berari buruzko publizitatea egiteko.

Publizitatearen helburu nagusia gertakariaren berri zabaltzea izanez gero, kenkariaren oinarria inbertsioaren zenbateko osoa izango da. Bestela, kenkariaren oinarria inbertsioaren ehuneko 25 izango da.

Lehen zenbaki honetan arautzen den kenkariari Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 67. artikuluan ezartzen dituen arauak aplikatuko zaizkio; kenkariaren zenbatekoa ezin da izan artikulua horretako 1. apartatuan ezartzen den baterako mugatik gorakoa.

Zenbaki honetan aipatzen den partida kengarriaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 128. artikuluan xedatzen duenaren eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 105. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako (artikulu horietan xedatzen dena aplikatu behar da).

Kenkari hau bateraezina da Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak ezartzen dituenekin, ondasun edo gastu berberak kontuan hartuz.

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, sozietateen gaineko zergaren zergadunek eta egoitza iraunkorraren bitartez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek foru arau honek 22., 23. eta 24. artikuluetan, hurrenez hurren, arautzen dituen kenkariak aplikatzeko eskubidea edukiko dute, aurreko 2. apartatuan ezartzen denaren arabera sortzen den organoaren alde egindako dohaintzen eta ekarpenak direla eta.

Foru arau honetako aurreko artikuluan ezarritako lehentasuneko mezenasgoaren araubidea gertakariarekin zerikusia duten programa eta jarduerari aplikatu ahal izango zaie, hori burutzeko ardura duen partzuergoak edo administrazio organoak onartzen baditu eta foru arau honetako 5. eta 19. artikuluetan aipatutako entitateek edo partzuergoak edo organoak egiten badituzte.

Hirugarrena. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaindu behar duten ondare eskualdaketek kuotaren ehuneko 95eko hoberia jasoko dute, baldin eta zergadunak eskuratutako ondasun eta eskubideak zuzenean eta bakar-

bakarrik apartatu honetako lehenengo puntuan aipatutako kenkarietarako eskubidea duten inbertsioak egiteko erabiltzen baditu.

Laugarrena. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboek kuotaren ehuneko 95eko hobaria edukiko dute jarduera egiteko egiten dituzten arte, kultura, zientzia eta kirol jardueren kuotetan eta errekarquetan, baldin eta partzuergoak edo administrazio organoak egindako jarduera plan eta programen barruan badaude.

Bosgarrena. Kasuan kasuko programaren helburuak garatzen dituzten enpresek edo entitateek ehuneko 95eko hobaria edukiko dute programa horren garapenari soilik lotutako eragiketen gaineko udal zerga eta tasa guztietan.

4. Zerga administrazioak zerga onurak aplikatu ahal izateko betekizun edo baldintzak betetzen ote diren begiratuko du eta, behar izanez gero, erregularizazioa egingo du.

5. Erregelamendu baten bidez interes publiko bereziko gertakariak sustatzeko programetan ezartzen diren zerga onurak aplikatzeko prozedura eta gainerako betekizunak ezarriko dira.

IV. TITULUA BESTE XEDAPEN BATZUK

I. KAPITULUA ZERGA ARAUBIDE BEREZIA APLIKATZEN DEN BESTE KASU BATZUK

33. artikulua. Euskaltzaindia, Instituto de España eta errege akademiak

Foru arau honek 18. artikuluan ezartzen duena Euskaltzaindiari, Espainiako Institutuari eta horretan bildutako errege akademiei aplikatuko zaie, bai eta berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiarenantzeko xedeak dituzten erakundeei ere.

34. artikulua. Gurutze Gorria eta ONCE

Foru arau honek 18. artikuluan ezartzen duena Gurutze Gorriari, Espainiako Itsuen Erakundeari eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan irabazteko xederik gabe gizarte edo laguntza lanetan ari diren pareko entitateei aplikatuko zaie.

35. artikulua. Erakunde erlijiosoek fundazioak

Foru arau honetan xedatutakoak ez du eragozten Eliza Katolikoarekin egindako akordioetan, Estatuak eliza, konfesio eta komunitate erlijiosoekin sinatutako akordio eta lankidetzak hitzarmenetan eta horiek aplikatu ahal izateko arauetan entitate horien fundazioez ezartzen dena. Hortaz, fundazio hauek foru arau honetako 7 - 28 bitarteko artikuluetan ezartzen den zerga araubidea hautatu ahal izango dute, baldin eta Erakunde Erlijiosoek Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkezten badute eta foru arau honek 5.6 artikuluan ezartzen duen baldintza betetzen badute.

36. artikulua. Eliza Katolikoaren eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijiosoen zerga araubidea

1. Foru arau honek 7 - 18 bitarteko artikuluetan, biak barne, ezartzen duen araubidea Eliza Katolikoari eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuei, Espainiako estatuarekin lankidetzaz hitzarmena sinatuta dutenei, aplikatuko zaie, aurreko artikuluan aipatzen diren akordioetan ezartzen dena gorabehera.

2. Foru arau honetan ezartzen den araubidea aplikatuko zaie, bestalde, Espainiako estatuak eta Egoitza Santuak Ekonomi Gaiei buruz sinatu zuten Akordioaren V. artikuluan aipatutako elkarte eta erakunde erlijiosoei, bai eta honakoetan adierazten diren erakundeei ere: Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetzaz Akordioa onesten duen azaroaren 10eko 24/1992 Legeko 11. artikuluan 5. apartatua; Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren arteko Lankidetzaz Akordioa onesten duen azaroaren 10eko 25/1992 Legeko 11. artikuluan 5. apartatua; eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamiarraren arteko Lankidetzaz Akordioa onesten duen azaroaren 10eko 26/1992 Legeko 11. artikuluan 4. apartatua. Horretarako, entitate horiek guztiek foru arau honetan araubide hori aplikatu ahal izateko irabazteko xederik gabeko entitateentzat ezartzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

3. Estatu espainiarraren eta Egoitza Santuaren arteko Gai Ekonomikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioko IV. eta V. artikuluetan adierazitako entitateek eta Estatu espainiarrak beste eliza, konfesio eta komunitate erlijiosoen arteko lankidetzaz akordioetan adierazitakoek mezenasgoa jaso ahal izango dute, foru arau honetako 18 - 28 bitarteko artikuluetan, biak barne, ezartzen denaren ondorioetarako.

37. artikulua. Kirol federazioak

1. Kirol federazioek antolatzen dituzten ikuskizunetan lortzen diren sarrerak ez dira kontuan hartuko foru arau honen 5. artikuluko 4. zenbakian aipatzen diren estatutueto helburuekin edo xedearekin lotu gabeko ustiapen ekonomikoen sarreraren ehuneko 40 zenbatzeko orduan.

2. Sozietateen gaineko zergatik salbuetsita daude kirol federazioek lortzen dituzten errentak. Hauek selekzio nazionalak edo autonomikoei parte hartzen duten adiskidantzazko norgehiagokak edo txapelketa ofizialak egitetik nahiz horiek komunikabideetan emateki etorriko dira, betiere norgehiagoka horiek federazioek bere antolatutakoak badira.

3. Foru arau honen 5. artikuluko 5., 6. eta 7. zenbakietan ezartzen diren betekizunak ez zaizkie aplikatuko artikuluan honetan arautzen diren entitateei.

38. artikulua. Alderdi politikoen aldeko dohaintzen zerga araubidea

1. Foru arau honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak 4.2 artikuluan aipatzen dituen dohaintzei.

2. Ekarpen edo dohaintza berberetan, foru arau honen 22. artikuluan ezartzen den kenkaria ez da bateragarria izango honako bi hauekin: batetik, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 22.b) artikuluan ezartzen duenarekin; bestetik, foru arau berak 93.2 artikuluan ezartzen duenarekin.

3. Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan ezartzen ez den guztian, alderdi politikoei zergei buruzko arau orokorrak aplikatuko zaizkie eta, bereziki, foru arau honetan ezartzen dena.

II. KAPITULUA EZ-BETETZEEN ARAUBIDEA

39. artikulua. Ez-betetzen ondorioak

[\(1\)](#) Mezenasgoaren onuradun diren entitateek foru arau honen 5. artikuluan ezarritako betekizunak ez betetzeak edo foru arau honen 17. artikulua 2. apartatuaren azken paragrafoan edo 17. artikulua 3. apartatua arautzen diren zehapenak ezartzeak ez-betetze hori gertatzen den ekitaldiari dagozkion sartu gabeko zenbateko guztiak eta bidezko berandutze interesak ordaindu beharra ekarriko du, eragindako tributuari dagokionez eta haren araudi erregulatzaileraren arabera. Betebehar hau foru arau honen III. tituluaren arautzen diren zerga pizgarriak aplikatu dituenek ere edukiko dute, baldin eta loturarik badute mezenasgoaren onuraduna den entitatearekin edo onustean jardun ez badute.

Hain zuzen ere, artikulua honetan ezartzen den betebeharra, foru arau honetako 5.2 artikulua arautzen den betekizunari dagokionez, behar bezala aplikatu ez diren emaitzak eta diru sarrerak lortu diren ekitaldiko sartu gabeko kopuruei aplikatuko zaie, eta artikulua bereko 8. eta 9. zenbakietan ezartzen den betekizunari dagokionez, ez-betetzea gertatzen den ekitaldiko eta aurreko hiru ekitaldietako sartu gabeko kopuruei aplikatuko zaie. Gainera, bidezko zehapenak ere jarri ahal izango dira.

III. KAPITULUA ELKARREKIKOTASUNA

40. artikulua. (1) Elkarrekikotasuna

Lehentasuneko mezenasgo jardueretarako eta interes publiko bereziko gertakariak sustatzeko programetarako foru arau honen 31. eta 32. artikuluetan ezartzen diren zerga pizgarriak Estatuko eta foru lurraldeetako organo eskudunek halakotzat jotzen dituzten jarduerari eta programei aplikatuko zaizkie, baldin eta haiek onetsitako araudian elkarrekikotasunarekin aintzatesten badituzte Arabako Foru Aldundiak onetsitako jarduerak eta programak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Araudiari buruzko aipamenak.

Irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren aipamen guztiak foru arau honetako manuek egintzat hartu behar dira.

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aldaketa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 91. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"91. artikulua. Mezenasgo jarduerengatik aplika daitezkeen kenkariak.

1. Zergadunek irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien foru arauan ezartzen diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte.

2. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren oinarria ezin da izan zerga honen zerga oinarriaren ehuneko 35 baino gehiago. Zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga oinarriaren batura izango da, foru arau honek 67. eta 68. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.

Ezarritako muga gainditzen delako kenkaririk gabe geratzen diren diru kopuruak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

3. Artikulu honetan xedatzen denaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, foru arau honek 105. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako (artikulu horretako 2., 3. eta 4. apartatueta xedatzen dena aplikatu behar da)."

Hirugarrena. Kooperatiben zerga araubidea aldatzea.

Kooperatiben zerga araubidearen ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauko 43. artikuluko 3. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

"3. Udal zergetan aplikatu beharreko zerga araubidea irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien foru arauko 18. artikuluan ezartzen dena izango da."

Laugarrena. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren aldatzea.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. Bat. A.3 artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"3. Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien foru arauko 4. artikuluan aipatzen diren irabazteko xederik gabeko entitateak, baldin eta zerga araubide bereziari heltzen badizkiote foru arau horrek 16. artikuluan ezartzen duen moduan."

Bosgarrena. Toki ogasunak.

Foru arau honetan aipatzen diren zerga pizgarriei Toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 9. artikuluan xedatzen duena aplikatuko zaie eta, beraz, ez da konpentsazio ekonomikorik emango.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Araubide iragankorra.

Foru arau hau indarrean jartzen denean Irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak II. tituluan ezartzen duen zerga araubide berezia aplikatzen ari diren entitateek foru arau honek 5. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte, foru arau honetako 16. eta 18. artikuluetan aipatzen diren hautapena eta komunikazioa aurkeztu beharko

dizkiote zerga araubideari foru arau hau aplikatu behar den lehen zergaldia amaitu baino lehen.

Xedapen iragankor honetan ezartzen den betebeharra betetzen ez dutenek ezin izango dute aplikatu foru arau honek II. tituluan ezartzen duen araubidea foru arau hau aplikatu behar den lehen zergaldian. Nolanahi ere, hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango dute, hautapena aurkeztuz gero.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru arau honek ondorioak sortzen dituen egunean indargabetuta geldituko dira bertan ezartzen dutenaren kontrako xedapen guztiak eta, batez ere, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Araugintzako gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Zergaldiak dituzten zergei dagokienez, foru arau honek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

OHARRAK

- (1) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).
- (2) 19/2024 Foru Araua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 147. zk., 24-12-30ekoa).